

Euskal Departamendua, hats berri bat

Egitura berria sortzeko une aproposa dela esan dute Donapaleun sektore ezberdinek

Azken bost urteotan gaiari buruz Ipar Euskal Herriko herritarren ikuspegia erabat aldatu dela oharturik eta gehienak alde direla kontuan izanik, Euskal Departamendua sortzeko garaia dela azpimarratu dute hainbat alderdi eta sektoretako ordezkariak, Avenir du Canton Amikuzeko elkarteak ortziral arratsean antolatu zuen eztabaidan.

Hur Gorostiaga / Donapaleu

IPAR EUSKAL HERRIAN departamenduaren eskaera, departamendua bera bezain zaharra da, Jean Louis Davant historialariak azaldu zuenez. Geroztik hainbat eskaera eta proposamen egin dira berrehun urtez, «baina gaur egun oraino gutiengo ezagupenik ere ez dugu», Jakes Abeberri Miarritzeko zinegotzi eta Aberzaleen Batasuneko kideak azaldu zuenez.

Azken urteotan mentalitateak arrunt aldatu direla erraterakotan denak datoz bat. «Euskal Departamendua ez da gehiago gai tabu bat», zioen Jean Aniozbehere Sarako auzapez eta Euskal Departamenduaren Aldeko Hautetsien Elkarteak buruak. Michel Intxauspe RPRko diputatua, urte luzez etsai amorratua izan zena, orain aldeko ageri da. Aberzaleek eta ekonomialariek, berriz, betidanik galdegin dute, «Euskal Departamendua ezagupenaren lehen heina baita», Abeberriren erranetan. Bestalde, «behar ekonomiko garrantzitsua da», Jacques Saint Martin ekonomialari eta AND departamenduari berri baten aldeko elkarteak buruaren arabera.

«Egun, auzapezen bi heren, euskal diputatuen bi heren eta biztanleriaren bi heren Euskal Departamenduaren alde da. Euskal Departamendua orain egin behar da», zioen Intxauspek. «Egun, hautetsiak subsidio pean bizi gara, subentzioen zain, eta Euskal Departamenduaren arrunt kontra dauden Bayrou bezalakoei tapiz gorria aitzinean ezartzera ohituak gaude. Baina ia azapez gehienak boz sekretuen bidez Euskal Departamenduaren alde agertu ondoan, gauzak argitu dira. Hiri handietako auzapezek bilkura boikotatu eta bozketa galarazteko medio oro erabili zuten, baina ez zuten lortu», oroitarazi zuen Aniozbeherek. «Horregatik Euskal Departamendua orain egin beharrekoa da. Ez da mirakulurik itxoin behar. Hiri handietako auzapezak ez dira bat-batean Euskal Departamenduaren alde agertuko, sozialistek nahi duten bezala. Hori ezinbestekoak dituzten goitik etorritako subentzioei eta Bayrou bezalako lagunei bizkar ematea da», gehitu zuen Intxauspek.

Nicole Pery diputatu sozialistaren izenean mintzatu zen Mi-



Michel Intxauspe - ezker- eta Jakes Abeberri izan ziren hizlari, besteak beste, Donapaleuko Airetik salan, H. G.

chel Larroutourouk, berriz, denen mobilizazioaren beharra azaldu zuen. Intxausperekin kontaktuan daudela ziurtatu eta Parisen elkarrekin lan egiteko prest agertu ziren. Izan ere, «arazoa Parisen» omen dago.

Ororen buru, gizartean informazio gehiago zabaldu beharra eta Euskal Departamenduaren inguruan nahitara zabaldu diren zurrumurru faltsuei aurre egin


beharra esan zuten, «Euskal Departamendua hats berri bat ekarriko baitie euskal herritarrei». Interesgarria izan zen eztabaida, baina bi puntu garrantzitsu geratu ziren sakondu gabe. Batetik, Jacques Saint Martinek aipatu zuen gisan, «Departamenduaren muga Landesetaraino heda daiteke, landestarrek hala nahi badute». Hala gertatuko balitz, ez litzateke Euskal Departa-

mendua. Bigarrenik, aldiz, Euskal Departamendua departamendu soil batek baino gaitasun gehiago izateko posibilitatearen inguruan «iparraldeko gehiengo ez da ados departamendua baino gehiago ukaiteko», «hori gure haurren haurrek erabaki behar-ko dute», «ez dagokigu guri» eta antzerako ihardespak entzun ziren, beste tabu bat sortu den seinale. X

kaltegarriak dira. Baina garbi utzi behar da non hasten den eta zergatik hasten den, gero jakiteko nola gelditu dezakegun.

■ Alkartasuna Eguna dauka EAk igande honetan Zarautzen, zein da zuen asmo nagusia? Alkate eta zinegotzietatik elkartasuna adierazteko ekitaldi bat iragarri duzue, zergatik ikusten duzue horren beharra?

Gipuzkoan bereziki izan dira gure egoitza eta kargu publikoen aurka erasorik handienak. Hor gure elkartasuna azaltzea derrigorrezkoa da. Horrez gain, azkenengo denboraldi honetan ikusi da alkate batzuk, alderdi politiko ezberdinekoak gainera, hasi direla pixka bat mugitzen, gizarte mobilizazioak bultzatuz, eta badirudi alderdiak gaudela alkate horien estrategiatik aparte edo gure ekintzak ez duela dexente laguntzen alkate horien inizatiba. Ekitaldi honekin nahi dugu esan EA bere



Jose Julian Irizar. ANDER GILLENIA

alkateekin eta jarrera hartze horiekin ados dagoela. Bestalde, gure proiektu politikoa aurkeztu nahi dugu berriro, proiektu bakarra eta beste alderdi abertzaleetatik desberdina, eta gure jendea animatu, esanez sendoago eta indartsuago gaudela gizartean.

■ Zertan oinarritzen zara esateko EA sendoago eta indartsuago dagoela gizartean?

Aurrena, bere presentziari instituzio guztietan oso balorazio handia ematen diote, jendeak ikusten duelako presentzia baikorra izan dela. Arbitro bezala egin du, tirabirak lasaitzeko. Arlo instituzionalan, lasaitasun eta lan giro horretan EAren ekarpena oso garrantzitsua da eta, nik uste, gizarteak hala ikusten du. Bestalde, gero eta gehiago jende artean zabaltzen eta normaltzen ari da alderdi abertzaleen aldetik egon behar duela aniztasuna, eta hori ona dela gizarte osoarentzat eta baita bertzaleentzat ere. Hori gizartean ondo finkatuta, beste alderdiak ere horrela ari dira ikusten eta hori pauso garrantzitsua da abertzaleen arteko kolaborazioa bere esparruan sartzeko eta helburuak ondo finakatzeko.

Pello Urzelai
DONOSTIA

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

1997/98 IKASTURTERAKO IKASKETA LAGUNTZAK (MAILA EZ-UNIBERTSITARIAK)

Interesatuiei jarraian aipatutako mailatarako ikasketak laguntzeko epea ezagutu arazten zaie: HAUR HEZKUNTZA (2 zikloa), LEHEN HEZKUNTZA, DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA, HELDUEN HEZKUNTZA IRAUNKORRA, HEZKUNTZA BEREZIA, BATXILERGOA, UNIBERTSITATERA BIDERATZEKO IKASTURTEA, LANBIDE HEZIKETA, IRAKASKUNTZA ERTAINEN ERREFORMA, LANBIDE MODULUAK 2 ETA 3, HIZKUNTZAK (Eskola Ofiziala), ARTE APLIKATUAK ETA LANBIDE ARTISTIKOAK ETA MUSIKA ETA DANTZAKO OINARRIZKO ETA ERDI MAILAK.

Eskatzeko epea: irailaren 29tik urriaren 17ra arte.

Eskabidea egiteko inprimakiak: ikasleok ikasten ari diren ikastetxeetan egongo dira.

LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Material didaktikorako laguntza: liburuak erosteko.

HAUR HEZKUNTZA (2. zikloa) eta HHI 9.000 pta.
LEHEN HEZKUNTZA, DBH (1. zikloa) eta HEZKUNTZA BEREZIA 15.000 pta.
GAINERAKO IRAKASKUNTZA MAILAK 19.000 pta.

Ikaskuntzarako laguntza: ikaskuntza kuotak ikasleari sortzen dizkion gastuetan laguntzekoak.

Laguntza hau ikasketak Hitzarmen Partzialdun Ikastetxe edo Mailetan egiten ari diren ikasleei emango zaie.

UBI, IEE II ETA LOGSE BATXILERGOKOAK, LH II, LM II ETA III, ETA ERDIKO ZEIN GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK 68.000 pta.
BBB 37.000 pta.
HHI ETA GAINONTZEKO MAILAK, UDAL MUSIKA IKASTEGIETAN EMANDAKOAK BARNE 25.000 pta.

Bidaletarako laguntza: bidaiek, LHI eta IEE (Ikastetxe Pribatuak), HB, BBB, UBI, LH II, IEE, LANBIDE MODULUAK 2 eta 3 eta Erdi Mailako beste ikasketak batzuetako (Ikastetxe Publiko zein Pribatuak). Ikasleari ekar diezaizkiokeen gastuetan laguntzea da laguntza-mota honen helburua beti ere ikaslearen bizilekua 5 kilometro edo gehiagotara dagoenean.

5 km.-tik 10 km.-tara 20.000 pta.
10 km.-tik 30 km.-tara 41.000 pta.
30 km.-tik 50 km.-tara 85.000 pta.
50 km.-tik gora 103.000 pta.
UBEI 39.000 pta.
EGOITZAGATIK 235.000 pta.

Jangelarako laguntzak: Bizilekutik kanpo bazkaldu beharregatik eta bere irakastorduek jardun etenekoak izateagatik, kontzeptu honek Hezkuntza Berezi, Eskolaurre, Lehen Hezkuntza eta DBH ikasleari ekar diezaizkiokeen gastuetan laguntzea da, laguntza-mota honen helburua.

Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 51.000 pta.

Konpentsazio laguntza: eskatzaileak LH II, IEE II, BBBeko 3. maila, UBI, Lanbide Moduluak 2 eta 3 eta LOGSE Batxilergoak ikasteak familiari ekar diezaizkiokeen desabantaiak konpentsatzea du laguntza-mota honen helburua.

Baldintza ekonomikoak: pertsona bakoitzaren urteko irabazi garbia ez dadila izan 293.000 pta. baino gehiagokoa.

LH II, III, LANBIDE MODULOAK EDO GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA ETA ARTE PLASTIKOETAKO ETA DISEINUKO GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA 215.000 pta.
IEE II, BBB 3, UBI, LOGSE BATXILERGOKOAK, II LANBIDE MODULOAK EDO ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA, ARTE PLASTIKOETAKO ETA DISEINUKO ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA ETA ARTE APLIKATUETAKO ETA LANBIDE ARTISTIKOETAKO ESPEZIALITATEA 160.000 pta.

Laguntzen zenbatekoa, guztira, ikasle bakoitzak eskubidea dueneko alde guztien batuketara izango da. Deialdi honetan ezartzen diren arauen arabera.

Informazio gehiagorako 97-9-1eko 165 zenbakia duen "EHAA"ra jo.

Baldintza ekonomikoak: ikasketak laguntza lortzeko gainditu ezin diren-irabazi GARBIAK (1996. urtea).

Familieko kopurua

Familieko kopurua	Irabaziak
1	940.000 pta.
2	1.537.000 pta.
3	2.018.000 pta.
4	2.392.000 pta.
5	2.671.000 pta.
6	2.933.000 pta.
7	3.191.000 pta.
8	3.446.000 pta.
9	(+251.000 pta.)

Adinari buruzko baldintzak: 1997-12-31n 23 urte beteta dituzten ikasleei ez zaie laguntzarik emango (HHko ikasleak, gaur ez ikasi edo beka berriaztate duten ikasleak salbu). HBko ikasleentzat edade muga, edozein kasuan, 21 urtekoa izango da.